Funtsezko bazkideak

Ez ginateke inorrekin elkartuko baina beste marka eta hornitzaile batzuekin kolaborazioak egiteko asmoa dugu. Izan ere, kolaborazio hauek gure produktuak diseinu ezberdinak hartzea ahalbidetuko liguke. Adibidez, Ordiziako festetarako udaletxearekin kolaboratu eta diseinu zehatz bat egingo genuke Ordiziako logoarekin.

ORDIZIAKO UDALA

Herri bakoitzeko festetan gure produktua saltzeko asmoa dugunez, herri horiekin zerikusia duen logoren bat jarriko dugu gure produktuan eta ondoren gure markako logoa.

Gainera tabernen hornitzaileak izango ginateke gure produktua emango baitiegu bertan saltzeko asmoarekin.

Horretaz gain, marka famatu ezberdinekin kolaboratuko dugu, hala gure produktuari aniztasun gehiago emateko aukera izango dugu eta modelo ezberdinak egiteko aukera izango dugu ere. Honi esker, bezero gehiako erakarriko ditugulakoan gaude eta diru-sarrerak handiagoak izango dira.